

OKUPAZIOAREN INGURUKO JARRERAK IBAETAKO IKASLEEN ARTEAN



Egilea: Manex Mailharin Ortigosa
Aurkezpen data: 2017/12/19

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	3
1.1 Aurrekariak.....	3
1.2 Arazoaren planteamentua.....	3
1.3 Ikerketaren zergatiak.....	4
2. Testuinguru teorikoa.....	5
3. Hipotesien planteamendua.....	6
4. Laginaren diseinua.....	6
5. Emaitzen azterketa estatistikoa.....	7
6. Ondorioak.....	9
6.1 Ikerketaren ondorioak.....	9
6.2 Ikerketaren inguruko hausnarketa.....	10
7. Eranskinak.....	11
Galdetegia.....	11
Erantzunen taula.....	13
Grafiko eta taulak.....	14

1. SARRERA

1.1 Aurrekariak

Nik planteatu dudan ikergaia esperientzia pertsonaletik dator. Izan ere, okupazioarena nire bizitzan zehar behin baino gehiagotan eta era ezberdinetan agertu den gai bat izan da. 14 urte nituenetik egon naiz herriko gazte mugimenduan burubelarri murgilduta eta bertan, gazteontzako espazio baten aldarria mahai gaineratzen genuen. Lehen aukera udalarekin negoziatzea bazen ere, bide horren erritmo motelak okupazioaz hitz egitera eraman gintuen; behin gure kuadrillakoek, oso gazte eta ezjakinak ginelarik, udalarena zen lokal bat okupatu genuelarik, hurrengo egunean harrapatu gintuzten arren. 6 urte beranduago, berriz ere agertu da okupatzeko beharra (edo hautua) nire bizitzan. Izan ere, egun ikasketak Donostian burutzen ditudan bitartean, bertan bizi naiz lantegi/tailer abandonatu batean.

Nik aspaldidanik jotzen dut okupazioa ekintza zilegi gisa, baina nire kezka da ea egungo gazteek ere begi onez ikusten duten. Susmoa dut gauzak asko aldatzen ari direla, jabetza pribatua oinarrituriko eredu honen hutsuneak (eta sufrimendua) agerian geratzen ari direla eta belaunaldi berrien artean, zenbait mesfidantza eragiten ari dela. Ez dakit den gizartea aldatzen ari delako eta horrek etorkizunean gauzak beste modu batera kudeatzeko aukera ekarriko luke, edo gazteak direlako eta bizitzaren fase honetan bestelako iritziak izaten ditugulako. Nolanahi ere, auzian pixka bat arakatzea da asmoa eta unibertsitateko ikasleen iritziak ezagutzea.

1.2 Arazoaren planteamentua (helburu eta galderak)

Helburu nagusia(k)

Ikerketaren helburu nagusiak oso xumeak dira. Batetik, Ibaetako kanpuseko ikasleek okupazioaren inguruan duten jarrera ezagutu nahi dut; eta bestetik, era xumean bada ere, posizionamendu horien atzean dauden diskurtsoetan arakatu nahi dut.

Galderak – kezkak

Helburu horiek zenbait galdera edo kezka adierazten dituzte, helburuak azaltzeko beste modu bat direnak. Batetik, eta lehen esan bezala, ze iritzi duen jendeak okupazioaren inguruan; eta askotan iritzia kasu bakoitzaren arabera izango denez, zein kasutan ikusten den zilegi gisa eta zeinetan ez: administrazioaren higiezin hutsen okupazioa, banketxeen higiezinena, bizilekurik ez duen batek egitea, hautu politiko gisa ulertzen duen batek egitea... Azkenik, jarrera bakoitzaren atzean dauden diskurtsoak eta mundu ikuskerak ezagutu nahiko nituzke: jabetza pribatuaren defentsa edo suntsipenaren aldeko jarrera, jabetzaren defentsa baina orekatzearen aldeko jarrera, banaketaren erdigunean, jabetza eskubidea baino lehen beharrak kokatzeko aldarria...

- Ze iritzi okupazioaren zilegitasunaren inguruan?
- Zein kasutan jotzen da zilegi gisa? Bankuen lokalak, administrazioarenak, jabe partikularrenak?

- Nork dezake zielgitasunez? Hautu politiko gisa hartzen dutenek, beharra dutenek bakarrik?
- Zein da okupazioaren zilegitasun ezaren arrazoiketa?
- Zein da okupazioaren zilegitasunaren arrazoiketa?

1.3 Ikerketaren zergatiak

Ikerketa honek zenbait onura ekarri eta zenbait ekarpen egin ditzake, aspektu ezberdinetan. Batetik, estrapolatuz gero, egungo ikasleen artean okupazioak duen zilegitasun maila aztertzeke aukera emango digu, nahiz eta estrapolazio hori EAEra eta unibertsitate publikora mugatu beharko litzateke, unibertsitate pribatuaren errealitatea ezberdina izan daitekeelarik. Honek inplikazio sozial handiak dauzka; izan ere, egungo ikasleen iritzia ezagutuz, etorkizuneko gizartearen iritzi eta baloreak aurreikus daitezke, hein batean behintzat. Gainera, okupazioaren inguruan ari garenean, jabetza pribatuaren inguruko jarreraz ere ari gara aldi berean, baita aberastasunaren banaketaz, delituaz... Hortaz, hemendik hamarkada batzuetara faktore askoren inguruko ulerkerak soziala zein izango den ezagutu ahal izango dugu, beti ere era absolutuan hartu gabe.

Bestalde, egun apustu hori egiten ari diren edo egin nahi dutenentzat laguntza itzela izan daiteke proiektu bat martxan jartzerako garaian. Esate baterako aliatu potentzialen maila neurtzeko aukera ematen du eta tresna bikaina da jendeak okupazioa zein kasutan babesten duten eta zeinetan ez jakiteko. Horretaz gain, okupazioaren aldeko diskurtsoak jendearengan izan duen eragina ebaluatzeko aukera ematen du, egindakoa ikusi eta falta denaz jabe egiteko; hala nola, bide horretan erronkak ezartzeko.

Azkenik, lan honen garrantzia aipatuko dugu ikerketa lan soil gisa, bere ekarpen handiena alor honetan egiten ez duela badakigun arren. Okupazioaren onarpen maila ez da asko ikertu eta etorkizuneko helduak izango direnen artean are gutxiago. Gainera, kanpus oso bateko ikerketa dela kontuan hartu behar da, jakintza adarren, sexuaren eta adinaren arabera bereiziz. Nolanahi ere, lanaren mugak ere mahaiganeratu beharra dago. Lehenik, bakarrik iritzia kontuan hartzen da eta ez jarrera aktiboa, hau da, jendeak okupazioa bere bizitzan zehar praktikan jartzeari begira daukan ikuspegia ez da aztertzen. Bigarrenik, kanpus osora maila berean heltzea oso zaila izan den ariketa izan dela aitortu beharrean nago.

- Onura: ikasleengan okupazioak duen zilegitasun maila ezagutzea
- Garrantzi soziala: etorkizuneko gizartearen baloreen bilakaera aurreikustea, egungo gazteen baloreak ezagutuz (jabetza pribatuaren eremuan, aberastasunaren banaketa...)
- Garrantzi praktikoa: proiektu bat bideratzeko aukeren berri izatea; okupazio baterako sektore aliatu posiblea neurtzea; okupazio mota lehenestea...
- Balio teorikoa: okupazioaren onarpen maila ez da asko ikertu, eta gutxiago etorkizuneko jendartearen osatuko duten gazteengan
- Balio metodologikoa: kanpus oso batean egindako ikerketa, jakintzaren adarrak, sexua eta adina bereiziz

2. TESTUINGURU TEORIKOA

Aztertu beharreko kontzeptu nagusiak

Gai hau jorratzerakoan nagusiki **okupazioaz** ari gara eta horri ikusten diogu **zilegitasunaz**. Baina horien atzean beste zenbait kontzeptu topa ditzakegu, kontua era konplexuagoan ulertu nahi badugu. Okupazioaz ari garenean, bere oinarritzko adieran, besterik gabe lekua hartzeaz ari gara, gazteleraz C hizkiarekin idazten denaz¹, baina hitzaren adiera politikoa kontuan hartzen badugu, gazteleraz ere K hizkiaz idazten dena, beste kontu batez ari gara. Honela dio Harluxet hiztegiak hitzaren hirugarren adieran: *Hutsik edo erabili gabe dagoen eraikin edo etxebizitza bertan bizitzeko edo zerbait egiteko legezko baimenik gabe hartu*². Hor jada beste ideia batzuk azaltzen zaizkigu, legea eta baimena. Legez kanpo egiten den zerbait dela begi bistan geratzen da, eta beraz **delitua** dagoela. Bestalde, baimenik ez dagoela, baina noren baimena? RAEko definizioari³ erreparatzen badiogu, testualki irakurriko dugu okupazioa jabearen onarpenik gabeko ekintza dela; beraz, jabearen baimenik gabeko ekintza da eta **jabetza pribatua** sartzen da jokoan. Egungo ekoizpen eredu kapitalistaren ezaugarrietako bat da jabetza pribatua, zeinaren arabera, pertsona fisiko zein juridiko batek bereak diren ondasunak izan ditzakeen, haiekiko kontrol "esklusiboa" berak duelarik. Hortaz, hitz gutxitan eta gure ikerketan erabiliko dugun esanahiari dagokionez, esango dugu okupazioa jabetza pribatuaren aurkako delitua dela.

Honen inguruan iritzi eta kasu ugari daude eta batzuetan subjektu-objektu harremanaren arabera asko aldatzen da, hots, bien arteko indar korrelazioaren arabera. Subjektua okupatzen duen pertsona da edo askotan despektiboki erabili izan den gisan, *okupa*. Objektua berriz, okupatua izan dena da; beraz, lokala eta batez ere haren jabea, espazioak ez baitauka esentzia etiko propiorik. Subjektuari dagokionez, zenbait kontzeptu bereiziko ditugu: **hautu politikoa, beharra...** Okupazioa hainbat arrazoi dela eta egin daitekeen ekintza da. Nagusiki bi arrazoi daude: etxebizitza propioa erosi edo alokatzeko **baliabide ekonomiko** (edo bestelakoak ere, paperak...) **falta** eta hautu politikoa, hots, aldarrikapen edo konbentzimendu moral baten izenean egitea, behar material bat asetzeaz harago, askotan behar material hori asetzeko baliabide propioak daudelarik. Objektuaz ari garenean, jabe ezberdinez ari gara, horrek asko aldatzen duelarik okupazioarekiko jendeak duen ikuspegia. Guk lau jabetza mota bereizi ditugu: **banketxeak, banketxeak ez diren enpresak, administrazio publikoa eta jabe partikularrak**.

Azkenik, jarrera bakoitzaren arrazoietan jabetza pribatuaren inguruko jarreraz gain, **aberastasunaren banaketaren** kontzeptua agertuko zaigu. Hortaz, aipaturiko kontzeptu horien bueltan giraka egonen da ikerketa lan hau.

1 Hauxe da definizioaren esteka: <http://dle.rae.es/?id=Qu5i3z8>

2 Hauxe da definizioaren esteka: <http://www1.euskadi.net/harluxet/>

3 Hauxe da definizioaren esteka: <http://dle.rae.es/?id=QySCSeP>

3. HIPOTESIEN PLANTEAMENDUA

Ikerketa oro kezka eta planteamendu batekin abiatzen den moduan, hipotesi propio batzuekin ere abiatzen da. Nire hipotesiak bi multzotan sailka daitezke: lehen multzoko hipotesiek adierazten dute jendea zein okupazio motarekin (lehen aipaturiko subjektu-objektu indar korrelazioaren arabera) dagoen ados eta zeinekin ez; bigarren multzoak aldiz, aurreikusi nahi du zein sektorek (sexuak, ikasketa arloak...) duen aldeko edo kontrako joera nabariagoa, halako alderik aurreikusten bada.

LEHEN MULTZOA

- Gehiengoak banku eta administrazioaren higiezin hutsen okupazioaren zilegitasuna partekatzen du
- Jabego partikularren higiezin kasuan, ez da okupazioaren alde kokatzen.
- Orokorrean erdiak baino gutxiagok uste du etxebizitza eskubidea jabetza pribatuaren aurretik jarri behar dela
- Okupazioa zilegitzat jotzen dutenen artean, gehienek hautu politiko iraunkor gisa ulertzen dute eta ez bakarrik egungo testuingurua dela eta

BIGARREN MULTZOA

- Sexuen artean ez dago alde handirik okupazioaren inguruko jarreran.
- FIHEZI fakultatean partikularren higiezin okupazioarekin ados dago erdia baino gehiago
- FIHEZI fakultatean, okupazioak onarpen maila handiena dauka
- Onarpen maila txikiena ekonomia fakultatean ematen da

4. LAGINAREN DISEINUA

Ikerketa honen populazioa Donostiako kanpusean ikasten duten 11.000 (aurkituriko azken datuen⁴ arabera, 2013-2014 ikasturtean 10.865) ikasle inguru dira, 10 fakultatetan banatua daudelarik, bakoitzean gradu, hizkuntza eta maila ezberdineko taldeak daudelarik. Laginaren hautaketa egiteko erabili den teknika mordoan hautaketa da, mordoak edo multzoak kasu honetan gelak edo ikas-taldeak izango direlarik. Mordoak aukeratzeko, esleipen bakuna erabili da; hau da, ez da kontuan hartu fakultate bakoitzak duen ikasle kopurua, ez zaielako iritzi orokorraren baitan fakultate bati edo besteari pisu gehiago eman nahi. Emaitzek argi adieraziko dute zein fakultatetan dagoen joera bat eta zeinetan beste bat. Hortaz, fakultate bakoitzeko talde bat hautatu da, osotara 10 taldek osatuko dutelarik lagina. Talde horien hautaketa ez da zorizkoa izango, baizik eta geruzatua, hots, maila eta hizkuntza ereduaren artean oreka mantentzen saiatuko gara.

Beraz, hauxe izango da lagina:

- 10 talde: Arkitekturako, Ekonomiako, FIHEZiko, Informatikako, Ingenieritzako, Kimikako, Magisteritzako, Osasungintzako, Psikologiako eta Zuzenbideko ikas-talde bana.
- Lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren mailako bina talde, bosgarreneko bat Arkitekturan

4 Datuen iturria: <http://www.ehu.es/zenbakitan/es/node/29.html>

eta seigarreneko bat Osasungintzan

- Erdia euskarazko taldeak eta beste erdiak gaztelerazkoak hartuko dira
- Graduari dagokionez, gradu bat baino gehiago dagoen fakultateetan, aukeratzeko bide ezberdinak erabili dira: Osasungintzan medikuntza hautatu da 6. maila bertan dagoelako bakarrik; Fihezin Filosofia hautatu da okupazioaren inguruko iritziari dagokionez, bereizgarriena delako, beste gradu batzuk lehen hezkuntzako profilaren antzekoak izan daitezkeelarik, batez ere, pedagogia eta gizarte hezkuntza; gainontzekoetan ikasle kopuru handiena duen gradua hartu delarik⁵.
 - Arkitektura: 5. maila gazteleraz
 - Ekonomia: 1. maila euskaraz
 - Fihezi: 2. maila gazteleraz (bereizgarriena izan daitekeen gradua: Filosofia)
 - Informatika: 3. maila euskaraz
 - Ingenieritza: 4. maila gazteleraz (ikasle gehien dauden gradua: ingenieritza mekanikoa)
 - Kimika: 1. maila euskaraz
 - Magisteritza: 2. maila gazteleraz (ikasle gehien dauden gradua: lehen hezkuntza)
 - Osasungintza: 6. maila euskaraz (Medikuntzako gradua)
 - Psikologia: 3. maila gazteleraz
 - Zuzenbide: 4. maila euskaraz (ikasle gehien dauden gradua: Zuzenbideko gradua)

*Gradua zehazten ez den fakultateetan gradu bakarra dago.

5. EMAITZEN AZTERKETA ESTATISTIKOA⁶

Ibaetako kanpuseko ikasleen gehiengoak (%93.5) okupazioa zilegi dela uste du. Horien artean batzuek edozein baldintzetan onartzen dute eta beste batzuek berriz, kasuaren arabera. %93.5etik %67.7k zilegi jotzen du bakarrik kasuaren arabera, hau da, ados daudenen %72.4ak. Geratzen den %6.5ak ez du okupazioa zilegitzat jotzen. (1)

Okupazioa bakarrik baldintza batzuekin zilegiztatu duten ikasleen artean gehienek (%66.7) bi faktore kokatzen dituzte haien jarrera baldintzatzen dutenak: subjektuaren egoera eta higiezin hutsaren jabetza mota. Laurden bati bakarrik bietako bat axola zaie eta bestea ez: %9.5ak bakarrik jabetza motari erreparatzen dio subjektuaren egoera inporta ez zaiolarik, eta beste %14.3arekin alderantziz gertatzen da, higiezinaren jabetza mota ez zaiola inporta, baina subjektuaren egoera jakin batzuetan bakarrik jotzen duela zilegitzat higiezin hutsen okupazioa; azkenik, %9.5-arentzat beste faktore batzuek baldintzatzen dute haien jarrera, zehaztu ez dituztenak. (2)

Higiezinaren jabetza motari dagokionez, hipotesiak bete egiten dira. Batetik, gehiengoak banku eta administrazioaren higiezin hutsen okupazioa zilegiztatu du. Baldintza gisa higiezinaren jabetza

5 Graduetako ikasle kopuruen datuen iturria: <http://www.ehu.es/zenbakitan/es/node/30.html>

6 Azterketa honetan egiten diren baieztapenak erakusten dituzten taula eta grafikoak ikusteko, amaierako eranskinera jo. Testuan zehar grafiko bakoitzari erreferentzia egiteko tamaina arrunteko zenbaki bat erabilio da parentesi artean,

mota jartzen dutenen artean, denek erantzun dute banketxeen lokal hutsak okupatzea zilegi dela eta administrazioarenak diren etxeei dagokienez, %75 dago ados. Bankuak ez diren enpresen lokal hutsekin, aldiz, pixka bat jaisten da adostasuna, %62.5ak partekatzen baitu. Horiei gehitu behar zaizkie edozein kasutako okupazioekin ados daudenak eta baldintza higiezin jabetza motan kokatu ez dutenak; hortaz, esan dezakegu ikasle guztien artean %93.5 dagoela banketxeen higiezin hutsen okupazioaren alde, eta %80.6 administrazioaren ondasunen kasuan.

Jabego partikularren higiezinekin sartzen bagara aldiz, ez dago aldeko jarrera orokorturik. Baldintza gisa higiezin jabetza mota jartzen dutenen artean, %6.3ak bakarrik onartzen ditu okupazio kasu horiek eta galdekaturiko ikasle guztiak kontuan hartuta, %45.1a dago alde. Hortaz, hipotesiak dioen bezala, gehiengo jabe partikularren etxe hutsen okupazioaren aurka kokatzen da. (3)

Subjektuaren egoerari erreparatuz, hipotesia ez da hain ziurra. Okupazioa onartzeko baldintzen artean subjektuaren egoera kokatu dutenen artean erdiak baino gutxiagok, %50ak aitortzen du hautu politiko soilak baldintza nahikoa dela okupazioa zilegi izateko. Galdera horretan, berriz denek onartzen dute bizilekurik ez dutenek okupatzea zilegi dela eta %68.8ak senideen etxetik joan baina horretarako baldintza ekonomikorik ez dutenek egitea. Hala ere, galdekaturiko ikasle guztiak kontuan hartzen baditugu (edozein kasutan ados daudenak, etab.) %64.5 inguruk onartzen du okupazioa hautu politiko gisa, eta ez bakarrik beharrak asetzeko tresna gisa. (4)

Arrazoiei dagokienez, okupazioarekin edozein kasutan edo kasu batzuetan ados ez dauden artean, gehienek (%75) jabetza pribatuaren defentsa egiten dute, ezin dela kolokan jarri defendatzen dutelarik. %12.5-aren iritziz okupatu ohi dutenak ez dira pertsona normalak eta beste %12.5-ak zehaztu gabeko beste arrazoi bat markatu dute. (5)

Okupazioa zilegitzat jotzen dutenen artean ere nahiko adostasun dago. Gehienek, ia lautik hiruk (%79.3) uste dute etxebizitza bat izateko beharra jabetza pribatuaren gaintik jarri behar dela, baina ez dute jabetza pribatua kolokan jartzen. Elkarrizketaturiko guztien artean %74.2a ordezkatzen dute. Hortaz, hemen nire hipotesia ez da betetzen, erdiak baino gehiagok kokatzen baitu beharra jabetzaren aurretik. Bestalde, %16.1ak jabetza pribatuaren existentzia bera kolokan jartzen du; azkenik, gutxi batzuen (%9.7) jarrera birbanaketa orekatuago baten aldekoa da, batzuk aberatsegiak direlakoan. (6)

Behin analisi orokorra eginda, elkarrizketatuen arteko talde ezberdinen arteko konparaketa egingo dugu, batez ere sexuen artekoa eta fakultateen artekoa, hipotesiak frogatze edo baztertze aldera. Hala ere, bestelako konparaketa batzuk egiteko aukera ere izango dugu: maila, adin tarreak, eta graduak.

Sexuari dagokionez, hipotesia zen ez zegoela alde handirik okupazioaren zilegitasunari dagokionez. Inkesta honetan, ordea, aspektu batzuetan adierazgarria da sexua; nolahi ere, kontuan hartu behar da galdetegi gutxi direnez, ez dela oso fidagarria emaitzak estrapolatzeko moduan. Bi sexuen artean gehiengoak baldintza batzuk jartzen ditu okupazioa zilegitzat jotzeko (emakumeen %75 eta gizonen %61.5), baina gizonen artean %15.4ak ez du inondik inora ere zilegitzat hartzen eta emakumeen artean ez dago inolako posizionamendu hori hartzen duenik. Hemen sexua ez da oso adierazgarria. (7) Higiezin jabetza motari dagokionez, aldea bankuak ez diren enpresen eta administrazioaren

higiezin kasuan ematen dira: hiru gizonetatik bakarrak onartzen du lehen higiezin okupazioa eta emakumeen artean, hirutik bik; eraikin publiko hutsei dagokienez berriz, emakumeak aurrekoan bezala kokatzen diren bitartean (%66-7a alde) gizonak ez dute zalantzarik egiten (%100). (8) Okupatzea zilegitzat jotzen duten subjektuekin berriz ez dago emakume eta gizonen arteko alde adierazgarriarik. (9) Hortaz, inkesta honen datuei erreparatuta, esan daiteke emakumeek okupazioaren aldeko jarrera hartzen dutela gizonak baino gehixeago.

Fakultateen arteko aldeak ikustera pasata, ikusiko dugu ez dela oso adierazgarria, zenbait datu kontuan hartzekoak badira ere. Nire hipotesia zen okupazioaren aldeko jarrera nabariena Fihezin fakultatean ematen zela, eta bertan kasu batzuetan behintzat denek zilegitzat jotzen badute ere, jarrera nabariagoa da Psikologian, Kimikan eta Osasungintzan. Hiru horietan edozein kasutan zilegitzat jotzen dutenen portzentaia altuagoa da. Nolanahi ere, beste faktore batzuei erreparatzen badiegu, emaitza ezberdinak lortuko ditugu. Osasungintzako bi herenek ez dute administrazio publikoaren jabetzak okupatzerik onartzen, ez eta banketxeak ez diren enpresenak. Bigarren kasu honetan, arkitekturan eta psikologian alde eta kontrakoan artean oreka dago. Gainontzekoetan, nahiko adostasun dago enpresen eta lokal publikoei dagokienez. Hala ere, jabetza partikularren okupazioaren kasuan, bakarrik Fihezin daukate zilegitzat (%20) jabetza motaren arabera iritzi bat edo bestea dutenak. Hala ere, hemen ez da hipotesia baieztatzen kasu guztietako okupazioaren alde daudenak batuta ere, %33.3 bakarrik kokatzen baita jabetza partikularren okupazioaren alde, erdia baino gutxiago beraz. Subjektu okupatzailearen kasuan ere Fiheziko ikasleek dute aldekatasun handiena kasua edozein dela ere: %75ek okupazioa hautu politiko gisa ulertzen dute, besteetan datua murriztagoa delarik (osasungintzan %66.7; psikologian %50 eta kimika zein arkitekturan %0). Bestalde, jabetza pribatuaren aurkako jarrera nabariena ere Fihezin ikus daiteke (osasungintzarekin batera), oso nabaria ez bada ere (%33). Hortaz, zuzenean ageriko iritziari erreparatuz gero, Fiheziko ikasleria okupazioa gehien zilegiztatzen duena ez izan arren, iritzi horren sakonean arakutzen badugu ikus dezakegu zenbait jarreretan *erradikalagoak* direla.

Dena den, okupazioaren inguruko jarrera aurkakoena Ekonomia eta Enpresako Fakultatean dagoela baieztatu egin da ikesten emaitzetan, inkesta bakarra lortuta oso fidagarria ez den arren. Hala ere, deigarria da okupazioaren aurka agertutako %9.5etik erdia Ekonomiakoa izatea eta beste fakultateen artean bakarrik Arkitekturan egotea horrelako jarrerarik.

6. ONDORIOAK

6.1 Ikerketaren ondorioak

Ikerketa honen emaitzek erakusten dutena laburki adierazten saiatuko naiz atal honetan. Oro har, egungo unibertsitateko ikasleen artean okupazioa tresna zilegi gisa ulertzen da helburu batzuetarako. Hortaz, orokorrean ez da baldintzarik gabe baztertzen delitu hau. Nolanahi ere, ez da edozein kasutan onartzen okupatzaileen hautua.

Hasieran aipaturiko okupatzaile-okupatu dikotomia desorekatua dagoenean bakarrik onartzen da; okupatzailea ahula denean edo okupatua indartsuegia. Zentzu horretan, okupatzaileak dirurik ez

duenean ulertzen dute okupazioa tresna zilegi gisa, kalean bizi den pertsona baten kasuan, emantzipatu nahi baina ezin duten gazteen kasuan... Txiroekiko babesak eta humanismoa daude horren atzean. Bestalde, okupaturiko higiezinak agente boteretsu batena denean eta botere horrek babes sozial gutxi duenean, lokal horiek okupatzea ere onarturiko ekintza bat da. Banketxeak esate baterako, hein handi batean krisian jokaturiko papera dela eta, asko ahuldu da haiekiko pertzepzio soziala; hori dela eta, denak daude ados banketxeen lokal hutsen okupazioarekin. Enpresen eta administrazioaren kasuan ere, maila baxuagoan bada ere, berdina gertatzen da; jendearen konfidantza galdu dutenez, botere gehiegi dutenez, etikoa da haiek hutsik duten eremuei erabilera ez legala ematea.

Dikotomia horretan desorekarik ez dagoen kasuetan, ordea, okupazioaren aldeko jarrera ez da hain nabaria, normalean ikasleak aurka agertu direlarik. Berebiziko beharra izan gabe, hautu politiko gisa egiten diren okupazioak beraz, ez daude hain ongi ikusiak. Jabe partikularren higiezin hutsen kasuan berdina gertatzen da. Haien jabetzek zilegitasun osoa dute, atzean esfortzua dutelakoan eta horiek okupatzea, hutsik edo abandonatuta egonda ere, ez da ontzat ematen.

Hortaz, ondoriozta daiteke egungo ikasleek okupazioa tresna zilegi gisa ulertzen dutela egungo gizartearen ematen diren desoreka ekonomikoak orekatzea helburua denean. Baina xedea jabetza pribatuaren aurka egitea denean, jabetza pribatua oinarrituriko gizartearen aurrean aldarri bat egitea denean, ez dago hain ongi ikusia. Beraz, ez da jabetza pribatua kolokan jartzen, guztiz errotua baitago.

Kontuan hartuta egungo ikasleak etorkizuneko ikaslearen oinarria izango direla eta unibertsitateko ikasleek pisu handia dutela gizartearen osotasunaren gain, esan daiteke etorkizunean ez direla desoreka handiak onartuko eta horren aurkako jarrerak babestuko direla, legearen barruan egon zein ez. Hala ere, aldeko jarrerak ez du esan nahi hau izango denik jendearen jarduna, iritziak ez baitu asmoa adierazten.

6.2 Ikerketaren inguruko hausnarketa

Azpiatal honetan ikerketa prozesuaren inguruko hausnarketatxo bat egitea izango da nire xedea. Batetik, oro har, inkesten bidez errealitate osoa ezagutzeko dagoen ezintasuna azpimarratu nahiko nuke. Izan ere, ikartzeileok diseinatzen ditugu erantzunak eta galderak gure helburu propioekin eta horrek bakarrik errealitate konplexuaren zati bat edo errealitatea bera era partzialean ezagutzea dakar. Errealitatea galdera eta laukitxo batzuetan deskribatu ezin den zerbait da, konplexutasunez bete. Hala ere, errealitatearen ulerkerak sinple edo eskematiko bat behintzat eskuratzen ahalbidetzen digu, guztiz fidagarria ez izatea suerta daitekeen arren.

Nire ikerketari dagokionez, susmoa daukat ez dela guztiz fidagarria. Izan ere, zenbait fakultatetan inkestak betetzea ez dut lortu (Informatika) eta beste batzuetan (Magisteritza, Ekonomia, Ingenieritza) oso gutxi lortu ditut. Hasieran galdetegi bat prestatu nuen online eta ezagunei bidalita, haiek haien klaseko Whatsappera linka pasa zezaten, 84 inkesta betetzea lortu nuen, fakultateko guztietako ezagunei bidali aurretik; baina emaitzak ez ziren galdetegi bakoitzeko bat, eta galdera bakoitzari erantzunak ez ziren lotuta ageri, bakarrik galdera bakoitzaren erantzunen ehunekoak.

Hortaz, whatsapp mezua baten bidez helaraztea erabaki nuen, ezin bainuen paperean helarazi inkestak fakultate guztietako taldeetara. Bigarren bide honen bidez, askoz inkesta gutxiago betetzea lortu dut. Izan ere, niri ere inkesta bat egitera datozkidanean askotan ezezkoa ematen diet, eta jendeak berdina egingo du. Hor ikusten da inkestatzaileen lana ez dela batere erraza.

7. Eranskinak

GALDETEGIA

Ikerketa honen bidez Ibaetako kanpuseko ikasleek okupazioaren inguruan duten jarreraren nondik norakoa ezagutzea da xedea. Minutu batzuk baldin badituzu, eskertuko nuke galdetegi labur hau erantzuko bazenu.

Galderak

1. Zein iritzi duzu etxe hutsen okupazioaren inguruan?

- a) Zilegia da edozein kasutan (saltatu 2., 3., 4. eta 5. galderak)
- b) Ez da zilegia (saltatu 2., 3. eta 4. galderak)
- c) Kasuaren arabera (zoaz 2. galderara)

2. Zeren arabera da zilegitasuna?

- a) Eraikinaren jabetza motaren arabera (erantzun 3. galdera eta 4.a ez)
- b) Subjektuaren egoeraren arabera (erantzun 4. galdera eta 3.a ez)
- c) Aurreko biak (erantzun 3. eta 4. galderak)
- d) Beste arrazoiren baten arabera (ez erantzun 3. eta 4. galderak)

3. Zilegitasuna jabetza motaren arabera bada, zein higiezin edo eraikin okupatzea da zilegi? (aukeratu zilegi iruditzen zaizkizun guztiak)

- a) Banketxeen higiezinak
- b) Bestelako enpresen higiezinak
- c) Administrazio publikoaren higiezinak
- d) Jabe partikularren higiezinak

4. Zilegitasuna subjektuaren egoeraren arabera bada, zein higiezin edo eraikin okupatzea da zilegi? (aukeratu zilegi iruditzen zaizkizun guztiak)

- a) Bizilekurik ez duten pertsona/familiak
- b) Senideen bizilekutik alde egin nahi duten pertsonak, baina ekonomikoki ezin dutenak
- c) Hautu politiko gisa ulertzen duten pertsona/familiak
- d) Beste arrazoiren bat

5. Okupazioari zilegitasuna aitortzen ez bazaio, zein da arrazoiketa?

- a) Jabetza pribatua ezin da kolokan jarri
- b) Okupazioaren alde egiten dutenek etxeak gaizki zaintzen dituzte
- c) Okupazioaren alde egiten dutenak ez dira pertsona normalak
- d) Beste arrazoiren bat. Zein?

6. Okupazioari zilegitasuna aitortzen bazaio, zein da arrazoiketa?

- a) Etxebizitza bat izateko beharra jabetza pribatuaren gainetik jarri behar da.
 - b) Jabetza pribatua ez litzateke existitu behar
 - c) Batzuk aberatsegiak dira, eta orekatu egin behar da
 - d) Beste arrazoiren bat. Zein?
-

Zuri buruzko galderak

7. Zein fakultatetan ikasten duzu?

- a) FIHEZI
- b) Psikologia
- c) Zuzenbidea
- d) Kimika
- e) Informatika
- f) Ekonomia
- g) Arkitektura
- h) Magisteritza
- i) Ingenieritza Eskola
- j) Osasungintza

8. Zein gradutan?

9. Zein mailatan?

- a) 1
- b) 2
- c) 3
- d) 4
- e) 5 (arkitektura edo osasungintza)
- f) 6 (osasungintza)

10. Zein da egokitu dizuten sexua?

- a) Emakumea
- b) Gizona
- c) Ez naiz aurrekoekin identifikatzen

11. Zein da zure adina?

ERANTZUNEN TAULA

JARRER	ARABER	JABETZA	SUBJEKT	EZ	BAI	FAKU	GRADU	MAIL	SEXU	ADIN	ZBK
1- zilegi					1- behar>jab	Psiko	Psiko	2	Emak	19	1
2- arabera	4- beste				1- behar>jab	Psiko	Psiko	2	Emak	19	2
2- arabera	4- beste				1- behar>jab	Psiko	Psiko	1	Gizon	18	3
2- arabera	3- biak + beste:	1, 2, 3	1, 2, 3		2- jabetza ez	Psiko	Psiko	1	emak	18	4
1- zilegi					1-beharra >	Psiko	Psiko	1	Ez identifik	20	5
2- arabera	3- biak	1 eta 3	1, 2		1- beharra>	Psiko	Psiko	3	Emak	20	6
2- arabera	2- egoera		1-bizilekez		1- beharra!	Kimika	Kimika	1	Gizon	18	7
2- arabera	3- biak	1, 2, 3	1, 2	1- ez kolok	1- beharra!	Kimika	Kimika	2	Emak	19	8
2- arabera	3- biak	1, 2, 3	1 eta 2	Ez egoera begirutzen!	1- beharra	arki	arkig	1	3 Ez ident	18	9
2- arabera	3-biak	1 eta 3	1 bizilekez	1ezkolok	3oreka	arki	arki	1	gizon	20	10
1- zilegi					1- beharra>	Osasun	med	4	giz	21	11
1- zilegi					2- jabetza ez	Osasun	med	5	giz	24	12
1- zilegi					2- jabetza ez	Osasun	med	5	emak	22	13
2- arabera	3-biak	1- bank	1 eta 3		1- beharra!	Osasun	med	6	emak	24	14
3- ez da				1ezkoloka		Enpresa	ADE	1	giz	20	15
2- arabera	3- biak	1- banket	1+ 4 beste	c- a normal	1 beharra!	HEFA	Filosofia	1	emakumea	18	16
2- arabera	3- biak	1, 2, 3	1, 2, 3	---	2- ez exst	HEFA	GH	2	emak	19	17
2- arabera	3- biak	1234	123		1 beh 3orek	HEFA	antropo	3	emak	20	18
2- arabera	1- jabetza	1, 2, 3			1 beharra	HEFA	ped	3	emak	23	19
2- arabera	3- biak	1, 2, 3	1, 2, 3	---	2- ez exist	HEFA	filo	4	gizona	21	20
3- ez				1 ezkoloka		Arki	arki	1	gizon	18	21

JARRER	ARABER	JABETZA	SUBJEKT	EZ	BAI	FAKU	GRADU	MAIL	SEXU	ADIN	ZBK
2- arabera	3-biak	1 eta 2	1bizileku		1beharra	Osasun	eriz	3	emak	20	22
2- arabera	3-biak	1 eta 3	1bizileku	1 ez kolok	1beharra	Osasun	eriz	3	giz	20	23
2- arabera	2- egoera		1, 2, 3		1 beharra!	Kimika	Kimika	3	Emak	21	24
1- zilegi					1-beharra >	Kimika	Kimika	3	Emak	21	25
1 zilegi					1 beharra!	HEFA	Ped	1	gizon	21	26
1 edozein					1beharra	Zuzen	zuzen	4	emak	21	27
2 arabera	3 biak	123	123		1beharra	Zuzen	zuzen	4	gizon	21	28
2 arabera	3 biak	123	123		1beharra	Zuzen	zuzen	4	gizon	21	29
2- arabera	1jabetza	1banketxe		1ezkoloka	1 eta 3	Magis	lehen	3	emak	20	30
2- arabera	2- subjekt		1 eta 2		1 beharra!	Politek	mekanika	1	gizon	18	31

GRAFIKO ETA TAULAK

(1)

Zein iritzi etxe hutsen okupazioaren inguruan?

		Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido	Zilegia edozein kasutan	8	9,2	25,8	25,8
	Kasuaren arabera	21	24,1	67,7	93,5
	Ez da zilegia	2	2,3	6,5	100,0
	Total	31	35,6	100,0	
Perdidos	Sistema	56	64,4		
Total		87	100,0		



(2)

Zeren araberakoa da zilegitasuna?

		Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido	Eraikinaren jabetza motaren arabera	2	2,3	9,5	9,5
	Subjektuaren egoeraren arabera	3	3,4	14,3	23,8
	Aurreko biak	14	16,1	66,7	90,5
	Beste faktore baten arabera	2	2,3	9,5	100,0
	Total	21	24,1	100,0	
Perdidos	Sistema	66	75,9		
Total		87	100,0		

(3)

\$higidena frecuencias

		Respuestas		Porcentaje de casos
		N	Porcentaje	
\$higidena ^a	Banketxeen higiezinak	16	41,0%	100,0%
	Bestelako enpresen higiezinak	10	25,6%	62,5%
	Administrazio publikoaren higiezinak	12	30,8%	75,0%
	Jabe partikularren higiezinak	1	2,6%	6,3%
	Total	39	100,0%	243,8%

a. Grupo

(4)

\$norkokup frecuencias

		Respuestas		Porcentaje de casos
		N	Porcentaje	
\$norkokup ^a	Bizilekurik ez duten pertsona/familiak	16	45,7%	100,0%
	Senideen bizilekutik alde egin nahi duten pertsonak, baina ekonomikoki ezin dutenak	11	31,4%	68,8%
	Hautu politiko gisa ulertzen duten pertsona/familiak	8	22,9%	50,0%
Total		35	100,0%	218,8%

a. Grupo

(5)

Okupazioari zilegitasuna aitortzen ez bazaio, zein da arrazoiketa?

		Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido	Jabetza pribatua ezin da kolokan jarri	6	6,9	75,0	75,0
	Okupazioaren alde egiten dutenak ez dira pertsona normalak	1	1,1	12,5	87,5
	Beste arrazoiren bat	1	1,1	12,5	100,0
	Total	8	9,2	100,0	
Perdidos	Sistema	79	90,8		
Total		87	100,0		

(6)

\$baizeba frecuencias

		Respuestas		Porcentaje de casos
		N	Porcentaje	
\$baizeba ^a	Etxebizitza bat izateko beharra jabetza pribatuaren gaineratik jarri behar da	23	74,2%	79,3%
	Jabetza pribatua ez litzateke existitu behar	5	16,1%	17,2%
	Batzuk aberatsegiak dira, eta orekatu egin behar da	3	9,7%	10,3%
Total		31	100,0%	106,9%

a. Grupo

(7)

Tabla cruzada

			Zein iritzi eke hutsen okupazioaren inguruan?			Total
			Zilegia edozein kasutan	Kasuaren arabera	Ez da zilegia	
Zein da egokitu dizuten sexua?	Emakumea	Recuento % dentro de Zein da egokitu dizuten sexua?	4 25,0%	12 75,0%	0 0,0%	16 100,0%
	Gizona	Recuento % dentro de Zein da egokitu dizuten sexua?	3 23,1%	8 61,5%	2 15,4%	13 100,0%
	Ez naiz identifikatzen	Recuento % dentro de Zein da egokitu dizuten sexua?	1 50,0%	1 50,0%	0 0,0%	2 100,0%
Total		Recuento % dentro de Zein da egokitu dizuten sexua?	8 25,8%	21 67,7%	2 6,5%	31 100,0%

(8)

Tabla cruzada de SEXUA*\$higidena

			\$higidena ^a				Total
			Banketxeen higiezinak	Bestelako enpresen higiezinak	Administrazio publikoaren higiezinak	Jabe partikularren higiezinak	
Zein da egokitu dizuten sexua?	Emakumea	Recuento	10	6	6	1	10
	Gizona	Recuento	5	3	5	0	5
	Ez naiz identifikatzen	Recuento	1	1	1	0	1
Total		Recuento	16	10	12	1	16

Los porcentajes y los totales se basan en los encuestados.

a. Grupo

(9)

Tabla cruzada de SEXUA*\$baizeba

			\$baizeba ^a			Total
			Etxebizitza bat izateko beharra jabetza pribatuaren gainetik jarri behar da	Jabetza pribatua ez litzateke existitu behar	Batzuk aberatsegiak dira, eta orekatu egin behar da	
Zein da egokitu dizuten sexua?	Emakumea	Recuento	13	3	2	16
	Gizona	Recuento	8	2	1	11
	Ez naiz identifikatzen	Recuento	2	0	0	2
Total		Recuento	23	5	3	29

Los porcentajes y los totales se basan en los encuestados.

a. Grupo

(10)

Tabla cruzada

			Zein iritzi etxe hutsen okupazioaren inguruan?			Total
			Zilegia edozein kasutan	Kasuaren arabera	Ez da zilegia	
Zein fakultatetan ikasten duzu?	HEFA	Recuento % dentro de Zein fakultatetan ikasten duzu?	1 16,7%	5 83,3%	0 0,0%	6 100,0%
	Psikologia	Recuento % dentro de Zein fakultatetan ikasten duzu?	2 33,3%	4 66,7%	0 0,0%	6 100,0%
	Zuzenbidea	Recuento % dentro de Zein fakultatetan ikasten duzu?	1 33,3%	2 66,7%	0 0,0%	3 100,0%
	Kimika	Recuento % dentro de Zein fakultatetan ikasten duzu?	1 25,0%	3 75,0%	0 0,0%	4 100,0%
	Ekonomia	Recuento % dentro de Zein fakultatetan ikasten duzu?	0 0,0%	0 0,0%	1 100,0%	1 100,0%
	Arkitektura	Recuento % dentro de Zein fakultatetan ikasten duzu?	0 0,0%	2 66,7%	1 33,3%	3 100,0%
	Magisteritza	Recuento % dentro de Zein fakultatetan ikasten duzu?	0 0,0%	1 100,0%	0 0,0%	1 100,0%
	Ingenieritza Eskola	Recuento % dentro de Zein fakultatetan ikasten duzu?	0 0,0%	1 100,0%	0 0,0%	1 100,0%
	Osasungintza	Recuento % dentro de Zein fakultatetan ikasten duzu?	3 50,0%	3 50,0%	0 0,0%	6 100,0%
	Total	Recuento % dentro de Zein fakultatetan ikasten duzu?	8 25,8%	21 67,7%	2 6,5%	31 100,0%

(11)

Tabla cruzada de FAKU* \$higidena

			\$higidena ^a				Total
			Banketxeen higiezinak	Bestelako enpresen higiezinak	Administrazio publikoaren higiezinak	Jabe partikularren higiezinak	
Zein fakultatetan ikasten duzu?	HEFA	Recuento	5	4	4	1	5
	Psikologia	Recuento	2	1	2	0	2
	Zuzenbidea	Recuento	2	2	2	0	2
	Kimika	Recuento	1	1	1	0	1
	Arkitektura	Recuento	2	1	2	0	2
	Magisteritza	Recuento	1	0	0	0	1
	Osasungintza	Recuento	3	1	1	0	3
Total	Recuento	16	10	12	1	16	

Los porcentajes y los totales se basan en los encuestados.

a. Grupo